

Azoreetako postal zaharrak

Porto Pimeko dama

Jatorrizko izenburua: *Donna di Porto Pim*

Egilea: Antonio Tabucchi

Itzultzailea: Fernando Rey Escalera

Argitaratze urtea: 2007

Argitaletxea: Alberdania&Elkar

A.IRIZAR

Literatura Unibertsala bildumaren azken aleetako bat dugu Antonio Tabucchi autore italiar prestigiotsuaren liburuxo hau, *Porto Pimeko dama* alegia. Edo, hobeki esanda, *Porto Pimeko dama eta beste istorio batzuk*, hori baitu izenburu osoa edo osatua, lagungarria gertatzen baita irudikatzeko ez dela honakoa, inondik ere, istorio bakarra kontatzen duen liburua.

Dena dela, ez da erraza azaltzen zer-nolako liburua den aipagai duguna. Bidaia-koaderno bat dugu, nolabait, oharrez, istorioz, aipamenez, irudiz eta kontu zaharrez betea, espazioan ez ezik denboran ere atzera-aurrera eta batetik bestera garamatzana. Edozein modutan, amaierako ohar laburrean ematen diren ohartxo historiko eta geografikoak alde batera utzita, ez dezala inork uste ohiko bidaia-liburu bat topatuko duenik, bidaia baten halako kronikarik-edo, nahiz eta liburuaren oinarria eta sorburua autoreak Azoreetako uhartera egin zuen bidaia bat izan. Liburuak kontatzen dizkigunak fikzio direnik ezin bada ere esan, errealitatea, hori bai, gandututa bezala agertzen zaigu. Postal zaharretako argazkiekin sarritan gertatzen den moduko zer edo zer gertatzen da; hau da, ez dago esaterik agertzen dutena egia ez denik, argazkiak baitira, baina, denboraren joanaren poderioz, nolabait ere errealitatea itxuraldatua, antzaldatua, erakusten digute.

Edonola ere, kasu honetan, ez da gehiegi kostatzen Atlantikoaren erdian dauden uharte bolkaniko, haizetsu eta bakarti hauetako giroan murgiltzea, baleak eta kaxaloteak irudikatzea, kresal usaina eta balea-arrantzale zailduak. Faial uharterko Peter's Bar mitikoa ere, Hortako badian, hor ageri zaigu, Atlantikoan zehar dabilzanen gutunez, mezuz eta oharrez betea iragarki-ohola. Liburua bera ere horrelako zerbait da, denetik duen halako bilduma bitxi bat, baina Tabucchik ederki taxutzen duena; izan ere, nahiz eta liburua osatzen duten testuak era askotakoak izan, trebetasunez lortzen du idazle italiarrak liburuari halako homogeneous bat ematea.

Fernando Rey izan dugu liburu honen itzultzailea. Ez du ordea hau Tabucchiren obra bat itzultzen duen lehenbiziko aldia. Izan ere, iazko udazkenean, Igela argitaletxearekin, *Sostiene Pereira (Pereirak dioenez)* argitaratu zuen, Tabucchiren lanik ezagunena seguruenik. Eta itzultzaile beraren eskutik heldu zaigu, orobat, *Piccoli equivoci senza importanza (Oker ttiki garrantzigeak)*, hori ere Literatura Unibertsala bilduman.

Hizpide dugun itzulpen honetatik, aipatzekoa iruditzen zait, besteak beste, Tabucchiren testuak ez ezik, beste autore batzuenak ere euskaratu behar izan dituela itzultzaileak, Tabucchik zenbait autoreren testu zatiak biltzen baititu liburura. Hor ditugu, besteak beste, Melvillen *Moby Dick* klasikoko pasarteak –ez ditugu alferrik baleak liburuko gai nagusietako bat–, eta horrek zer pentsa ere ematen du; alegia, badugula bai oraindik zer euskaratu eta zer eskaini euskal irakurleei.